



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

Segurtasun digitala. Gailuen babesa



Gailuen babesa

Gaitasunaren definizioa:

Gailu digitalak (konputagailuak, telefonoak, tabletak...) seguru mantentzean datza, birusen, hackeoen eta beste arrisku batzuen aurka babestuta egon daitezzen. Adibidez:

- **Pasahitz** sendoak erabili
- **softwarea** eguneratu
- **lotura susmagarriak** saihestu
- **deskargatutakoarekin** kontuz ibili

Laburbilduz, **gailu digitala zaintzea da**, ondo funtziona dezan eta datuak salbu egon daitezzen.



Gailu digitalen babesa

Ba al dakizu?

- **Aplikazioetara sartzeko pasahitz** seguru eta trinkoak erabiltzea ondorio negatiboak arintzeko modu bat dela. Adibidez kontu baten hackeoa saihesteko.
- **Gailu digitaletara sartzeko babes neurriak** (adibidez, hatz-markak, zifratzea) garrantzitsuak direla desiragarriak ez diren ondorioak saihesteko.



Gailu digitalen babesa

Ba al **dakizu**?

- Garrantzitsua dela **sistema eragilea eta aplikazioak** (adibidez, nabigatzailea) **eguneratuta** mantentzea, segurtasunaren ahultasunak zuzentzeko eta software gaiztoaren (hau da, malwarearen) aurka babesteko.
- Garrantzitsua dela ingurune digitaletan dauden **arrisku motak**, hala nola identitatea ordeztzea etabar ezagutzea



Gailu digitalen babesa

Aurrekoak jakinda ondorengoak **egiten ba al dakikizu?**

- Pasahitzei dagokienez **ziberhigiene-estrategia** egoki bat hartzen (adibidez, asmatzeko zailak diren pasahitz sendoak hautatuz) eta modu seguruan kudeatzen (adibidez, pasahitzen kudeatzaile bat erabilita).
- **Babes-programak** instalatzen eta aktibatzen (adibidez, antibirusa, antimalwarea, suebakia)
- Aplikazio batek telefono mugikorrean zer datu pertsonal erabiltzen dituen, eta horren arabera **erabaki instalatu** eta parametroak egoki konfiguratu



Gailu digitalen babesa

Garrantzitsua, besteak beste, ondorengo **jarrerak** aintzat izatea:

- Adi egotea **leku publikoetan** ordenagailuak edo gailu mugikorrak zaintzarik gabe **uztearekin**
- **Autobabeseko jokabide** batzuk hartzea, hala nola Wi-fi sare irekiak ez erabiltzea finantzako edo online bankako transakzioak egiteko



Adibidea. Enpresako Gailu Digitalen Erabilera Politika (I)

1. Politika honen **helburua** enpresako gailu digitalen erabilera segurua eta arduratsua bermatzea da, informazioaren segurtasuna eta langileen osasuna babestuz.
2. Politika hau enpresako **langile guztiei aplikatzen** zaie, bai enpresak emandako gailuak erabiltzen dituztenean, bai beren gailu pertsonalak lanerako erabiltzen dituztenean.



Adibidea. Enpresako Gailu Digitalen Erabilera Politika (I)

3. Segurtasun Neurriak

- **Pasahitzak:** Langileek pasahitz sendoak erabili behar dituzte eta bi faktoreko autentifikazioa ezarri behar dute gailu guztietan.
- **Software Eguneratzeak:** Gailu guztiek sistema eragile eta aplikazio eguneratuak izan behar dituzte.
- **Antibirus eta Antispyware:** Gailu guztietan antibirus eta antispyware programak instalatuta eta eguneratuta egon behar dute.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Fp
EUSKADI
LANBIDE HEZIKETA

Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako Sailburuordetza. Lan honek Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko Baimena dauka (CC BY-NC-SA 4.0).

